

ERRETERIAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA



Plan Orokorraren Bulegoa
Oficina del Plan General

**SEIGARREN TITULUA.- HIRI ETA LANDAKO INGURUMENA BABESTEKO ETA
NATURA, ANIZTASUN BIOLOGIKOA ETA PAISAIA ETA
ONDARE HISTORIKO-ARTISTIKO ETA ETNOGRAFIKO-
ARKEOLOGIKOA ZAINTEKO ARAUAK**



6.1. kapitulua	HIRI ETA LANDAKO INGURUMENA BABESTEKO ARAUAK	
6.1.01. artikulua.	Nahitaez bete beharreko arauak.....	328
6.1.02. artikulua	Obra eta Jardueren Jarraipen eta Kontroleko Organoa.....	328
6.1.03. artikulua	Aurreztearen sustapena eta energia berriztagarrien erabilera.....	328
6.1.04. artikulua.	Jardueren bateragarritasuna.....	328
6.1.05. artikulua.	Jarduerak behatzeko lekuak.....	329
- LEHEN ATALA.	ZARATA, BIBRAZIO ETA INFRASOINUENGATIKO JARDUERA GOGAIKARRIAK.....	329
6.1.06. artikulua.	Irizpide orokorra.....	329
- BIGARREN ATALA.	KE, HAUTS ETA EMANAZIOENGATIKO JARDUERA GOGAIKARRIAK...	329
6.1.07. artikulua.	Xedea.....	329
6.1.08. artikulua.	Aplikazio-eremua.....	330
6.1.09. artikulua.	Norabide orokorrak.....	330
- HIRUGARREN ATALA.	HONDAKIN ETA INDUSTRIAKO ISURKETENGATIKO JARDUERA GOGAIKARRI, KALTEGARRI ETA OSASUNGAITZAK.....	330
6.1.10. artikulua	Xedea.....	330
6.1.11. artikulua.	Aplikazio-eremua.....	330
6.1.12. artikulua	Norabidea orokorrak.....	330
6.2 kapitulua.	NATURA, ANIZTASUN BIOLOGIKOA ETA PAISAIA ZAINTEKO ARAUAK	
6.2.01. artikulua.	Nahitaez bete beharreko arauak.....	332
6.2.02. artikulua.	Lurzoru Ez Urbanizagarria babesteko norabide orokorrak.....	332
- LEHEN ATALA.	BASO NATURAL ETA ZUHAIZTIEN BABESA.....	333
6.2.03. artikulua.	Xedea.....	333
6.2.04. artikulua.	Aplikazio-eremua.....	333
6.2.05. artikulua.	Udaleko baso-ondarea.....	333
6.2.06. artikulua.	Titulartasun pribatuko lurak.....	336
6.2.07. artikulua.	Intereseko zuhaitz-espezien babesa.....	336
- BIGARREN ATALA.	UBIDE, IBAI-ERTZ ETA UR-BILKETEN BABESA.....	337
6.2.08. artikulua.	Xedea.....	337
6.2.09. artikulua.	Aplikazio-eremua.....	337
6.2.10. artikulua.	Norabide orokorrak.....	337



- HIRUGARREN ATALA. PAISAIAREN BABESA.....	338
6.2.11. artikulua. Xedea.....	338
6.2.12. artikulua. Aplikazio-eremua.....	338
6.2.13. artikulua. Norabide orokorrak.....	338
6.2.14. artikulua. Hondakin solidoen isurketak erregulatzeko baldintzak.....	342
6.2.15. artikulua. Erauzpen-jarduerek erasandako espazio naturalak leheneratzea.....	344
- LAUGARREN ATALA. GUNE HONDA ERRAZAK ETA ESPAZIO NATURALAK.....	344
6.2.16. artikulua. Gune honda errazak eta espazio naturalak babesteko berariazko neurriak.....	347
6.3 KAPITULUA. ONDARE HISTORIKO-ARTISTIKOA ETA ETNOGRAFIKO-ARKEOLOGIKOA BABESTEKO ARAUAK	
6.3.01. artikulua. Xedea.....	347
6.3.02. artikulua. Onura publikoko aitortpena.....	347
6.3.03. artikulua. Katalogazioaren norainokoa.....	347
6.3.04. artikulua. Katalogaturiko elementuen tipifikazioa.....	348
6.3.05. artikulua. Herrigune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziak Babes Erregimenean eragindako aldaketa.....	349



6.1 KAPITULUA. HIRI ETA LANDAKO INGURUMENA BABESTEKO ARAUAK

6.1.01. artikulua. Nahitaez bete beharreko arauak

Nahitaez bete beharko dira gaur egun indarrean dauden Lege, Dekretu eta Xedapen guztiak, edo Plan hau indarrean dagoen bitartean onesten direnak hiri eta landako ingurumena babesteko gaiari dagokionez.

6.1.02. artikulua. Obra eta Jardueren Jarraipen eta Kontroleko Organoa

Udalak jarraipen eta kontroleko berariazko organoa sortuko du obra eta jardueren udal-lizentzietan ezarritako neurri zuzentzaile eta baldintzatzaileen betetzeari dagokion denboran eta espazioan.

6.1.03. artikulua. Aurreztearen sustapena eta energia berriztagarrien erabilera

Udalak beharrezkoak diren administrazio-neurriak ezarriko ditu energia berriztagarriak sartu eta haien eta energia aurrezteko berariazko neurrien erabilera areagotzeko. Era berean, eraikuntza berriko udal-eraikinetan energia berriztagarrien produkzioarekin loturiko instalazioen eraikuntza bultzatuko da, eta jada badauden udal-eraikinetan energia horiek besteak ordezkatzeko. Sektore pribatuak horrelako politikak bere gain hartzea ere bultzatuko da.

6.1.04. artikulua. Jardueren bateragarritasuna

1. Hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarrietan 3/1998 Lege Orokorrak —otsailaren 27koa, Euskadiko ingurumena babestekoa— baimenduriko jarduerak jarri ahal izango dira soilik, betiere beharrezko neurri zuzentzaileak edo prebentzio-neurriak hartzen badira.
2. Jarduera bat beste jarduerekin bateragarritzat hartzeko, ondoko alderdiak bete beharko ditu:
 - a. Ez dira egin behar gas kaltegarrien emanazioak edo usain txarreko lurrinak, keak edo partikulak eragiten dituzten operazioak, arau hauetan ezarritako proportzioetatik gora.
 - b. Prozesuan ez dira erabili behar elementu kimiko sukoiak, lehergarriak edo, oro har, eragozpenak sortzen dituztenak.
 - c. Sor daitezkeen gas eta lurrinak ezaugarri egokiak dituen tximiniaren bidez soilik ezabatu ahal izango dira kanpoaldera.



- d. Bibrazioak, halakorik balego, kanpotik ez nabaritzeko moduan instalatuta behar du egon makineriak, edo arau hauek ezarritako zenbatekotik behera nabaritzeko moduan.
 - e. Kanpoaldera ez da transmititu behar arau hauek zonarako baimenduriko mailak baino goragoko mailarik.
 - f. Suaren aurkako segurtasun-baldintzak betetzea.
3. Eskatutako baldintzak beteko ez balira, ezta neurri zuzentzaileen bidez ere, Udalak ezarrita dituen zigor-ekintzak gauzatu ahal izango ditu.

6.1.05. artikulua. Jarduerak behatzeko lekuak

Arau hauek adierazitako aginduek mugatuko dute, euren ingurumen-eraginei dagokienez, hiri-ingurunean edozein jardueraren funtzionamenduaren ondoriozko inpaktua. Arauen betetzea ondoko behatzeko lekuetan egiaztatuko da:

- a. Gas kaltegarriak, keak, hautsak, hondakinak edo bestelako edozein poluzio-era, itsualdiak, perturbazio elektrikoak edo erradioaktiboak egiaztatzeko ondorio horiek nabarmenagoak diren puntuan edo puntuetan. Leherketa-arriskua badago, hura eragin daitekeen puntuan edo puntuetan.
- b. Zaratak, bibrazioak, usainak edo antzekoak egiaztatzeko lokalaren perimetroan edo lur-zatiarenean, jarduera bakarra bada eraikin bakan batean.

- LEHEN ATALA. ZARATA, BIBRAZIO ETA INFRASOINUENGATIKO JARDUERA GOGAIKARRIAK.

6.1.06. artikulua. Irizpide orokorra

Plan Orokor hau indarrean sartzen denean, indarrean dagoen Zarata eta Bibrazioen Udal Ordenantza udalerraren hirigintza-egoera jakinari egokitu beharko zaio, zonetarako eta sistema orokorretarako eraikuntza eta erabilerako hirigintza-erregimenari dagokionez.

- BIGARREN ATALA. KE, HAUTS ETA EMANAZIOENGATIKO JARDUERA GOGAIKARRIAK

6.1.07. artikulua. Xedea

Arauen xedea industria-jardueren erregulazioa finkatzea da, airearen kalitate-mailak ziurtatzeko.



6.1.08. artikulua. Aplikazio-eremua

Aplikazio-eremua Bigarren Mailako Sektorea: Industria sektorearen jardueri dagokio, publikoak edo pribatuak, Errenteriako Udal Mugartean instalatuak edo ezarri berriak.

6.1.09. artikulua. Norabide orokorrak

1. Ezin izango da emititu ezein errauts-mota, hauts, ke, lurrun, gas edo bestelako poluzio-erarik pertsonen osasuna kaltetu badezake, edo animalien edo landaren aberastasuna eta ondasun higiezinak kalte baditzaie, edo hiri-txukuntasunerako eska daitekeen garbitasun-baldintzak honda baditzaie.
2. Ezin izango da, ezein kasutan, 6.1.05 artikuluetan adierazitako lekuetan tresnarik gabe atzeman daitezkeen usainak eragiten dituzten substantziak manipulatu.
3. Gasak, keak, partikulak eta oro har atmosferaren edozein elementu poluitzaile ezin izango da ezein kasutan modu librean kanpora ebakatu; horri buruz aplikatzen denari egokitzen zaizkion hodi edo tximinien bidez ebakatu beharko dira.
4. Bero-sorgailuetarako, bereziki, keen gehieneko opakotasun-indizea bat (1) izango da Ringelmann eskalan edo bi (2) Bacharach eskalan, eta erregai solidoak erabiltzen dituzten instalazioetan gehienez ere ordu erdiz gainditu ahal izango dute indize hori instalazioak pizteko.

- HIRUGARREN ATALA. HONDAKIN EDO INDUSTRIAKO ISURKETENGATIKO JARDUERA GOGAIKARRI, KALTEGARRI ETA OSASUNGAITZAK

6.1.10. artikulua. Xedea

Arauen xedea saneamendu-sarearen eta instalazio osagarrien erabilera erregulatzea da.

6.1.11. artikulua. Aplikazio-eremua

Esparrua saneamendu-sareari, hustubideei eta Plan Orokorraren iraunaldian egiten diren sarearen handitzei dagokie.

6.1.12. artikulua. Norabide orokorrak

1. Industria-elaborazioko prozesutik datozen hondakin-urak industriak berak dekantatu eta araztuko ditu lehenik saneamenduko sare orokorretara isuri aurretik. Hondakin-ur poluituak produzitzen ez dituzten instalazioek zuzenean isuri ahal izango dute tartean jarritako sifoi hidraulikoarekin.



2. Hodi biltzaileen sarerako isurketak produzitzen dituzten instalazio industrialek saneamendu-sarerako Etxekoak ez diren Isurketei buruz indarrean dagoen Araudian ezarritako debeku eta mugak hartu beharko dituzte kontuan.



6.2 KAPITULUA. NATURA, ANIZTASUN BIOLOGIKOA ETA PAISAIA ZAINTEKO ARAUAK

6.2.01. artikulua. Nahitaez bete beharreko arauak

Nahitaez bete beharko dira 415/1998 Dekretua —Euskal Autonomia Erkidegoko Ibai-ertzak eta Erreka-ertzak Antolatze Lurraldearen Arloko Plana (Isurialde Kantauriarra) behin betiko onesten duena—, Baliabide Naturalak Antolatze Plana (BNAP), Aiako Harriko Parke Naturala Erabili eta Kudeatzeko Plan Zuzentzailea, Lau Haizetako Plan Berezia eta Gipuzkoako Mendien Foru Araua. Bestalde, kontuan hartu beharko dira, besteak beste, Eusko Jaurlaritzak argitaraturiko "Ibai Esparruko Ingeniaritza Naturalistikoko Tekniken Eskuliburua" lanetik ateratako gomendioak.

6.2.02. artikulua. Lurzoru Ez Urbanizagarria babesteko norabide orokorrak

- a. Debekatuta dago, edozein prozedura dela medio, inskripzioak, seinaleak, pintadak, markak, zeinuak edo marrazkiak egitea zuhaitzetan, arroketan edo natur ingurune edo ondare arkeologiko-etnografikoko edozein elementutan.
- b. Debekatuta dago objektu edo material erabili eta botatzekoak uztea edo hondakinak, isurketak edo poluzio edafikoa eragiten duen edozein ekintza edo ez-egitea.
- c. Debekatuta dago megafonoa edo bolumen handiko soinuak edo faunaren edo pertsonen ohiko portaera kaltetu dezaketzen zaratak sortzen dituen edozein bitarteko edo tresna erabiltzea. Salbuespenak izango dira udal-baimen bati loturiko jarduerak.
- d. Debekatuta dago ibai, erreka, iturri eta iturburuen ubide eta ertzetan garbitu edo harrikoa egitea. Debekatuta dago, era berean, natur ingurunean ibilgailuak garbitzea.
- e. Debekatuta dago banakako edo taldeko kanpatze librea, Udalak berak gerora begira zehaztu eta prestatuko dituen lekuetan izan ezik, eta betiere baimen-erregimen pean, Udaleko Zerbitzu Teknikoei informatuz. Udalak bere jabetzako basoko borden erabilera erregulatu ahal izango du. Dena den, agindu hori ez da aplikatuko oinezko mendi-zeharkaldietan edo "bibak-egitean" (gau bat), hau da, izarpean gaua igarotzea, dendetan edo herri-mendietan dagoen edozein basoko bordatan.
- f. Debekatuta dago sua piztea aisialdi-helburuekin horretarako baimenduriko lekuetatik kanpo, eta aisialdi-guneen barruan soilik baimenduko da halakorik.



- LEHEN ATALA. BASO NATURALEN ETA ZUHAIZTIAREN BABESA

6.2.03. artikulua. Xedea

Bertako baso-masen eta euren egiturazko konplexutasun biologikoaren eta zuhaitz-espezietako ale berezien babesa, zaintzea eta leheneratzea babesteko beharrezkoak diren neurriak hartzea. Zehazki, zenbait erabilera eta jarduera erregulatzen dira, natur eta landa-ingurunean eragin negatiboa izan dezaketena.

Zehaztapen hauek oinarritzkoak dira, eta goragoko babes-baldintzak ezarri ahal izango dira, dagozkien jardueren berariazko neurrien arabera.

6.2.04. artikulua. Aplikazio-eremua

Ez-urbanizagarritzat sailkaturiko lurzoruan, Lehen Sektoreko Erabilera Zona, LEZ, guztiak (Aiako Harriko interes naturalistiko berezikoa, Lau Haizetako paisaia eta kultur interesekoa, Litorretako aisialdi-interesekoa, nekazaritza eta abeltzaintzako eta landazabalekoa, erabilera definituriko bokaziorik gabea), Komunikazioen Sistema Orokorren eta Ibai Ubideen (Zortasun Zonak) bi aldeetara dauden babes-zonak barne, bertan eragina baitute baso-masek eta zuhaixka-landarediak.

6.2.05. artikulua. Udaleko baso-ondarea

1. Debekatuta daude titulartasun publikoko lurzoruen gainean finkaturiko bertako baso-masen mozketak, habitat naturalak leheneratzeko hobekuntzak izan ezik, bakantze, entresaka, eraztunketa, birpopulatze edo antzeko metodoen bidez. Aldez aurretik Aiako Harriko Parke Naturaleko Administrazioak emandako baimena eskatuko da horretarako. Era berean mozte, birpopulatze eta basoko pista oro mendia aztertu eta Udaleko Zerbitzu Teknikoen aginduzko txostenen ondoren burutuko da.
2. Udal Mugarte honetako titulartasun publikoko lurzoruetan (oro har Lau Haizetako Parkearen eta Aiako Harriko Parkearen barne daudenak), baso-erabilera lurren bokazioa bertako baso-sistemen zaintzea eta berritzea izango da, haien landarediaren potentzialtasunaren arabera (EAEko Landaredia Mapa, Eusko Jaurlaritzarena), eta masa irregular eta ez-adinkideak sortzeko bideratu beharko dira.

Ekosistemen egitura eta funtzio biologikoak berrezarri, zaindu edo mantentzea beharrezkoa denean, edo salbuespenezko desorekan dagoen haren elementu osagarriren batena, Udalak, mendiaren jabea denez, oreka naturalak eta erasandako habitatak berrezartzeko jarduketak sustatuko ditu.

3. Añarbeko herri-mendiko "epifito ugaridun ilex eta taxus-dun pagadiak" (Ilici-Fagion) osaturiko basoek okupaturiko esparruak, I.V.10.I.02 "Ingurune Fisikoa: Interes Ekologikoko



Gune Naturalak: Europako Batasunerako Interesa duten Habitat Naturalen motak" informazio-planoan identifikatuak eta Aiako Harriko ES2120006 "Europako Batasunerako Garrantzia duen Lekuan" (EBGL) barne harturikoak, "Kontserbazio Zorrotzeko Baso Gunea" bezala katalogatzen dira, eta bertan egiten diren esku-hartzeek aniztasun biologikoa zaintzea izango dute helburu bakartzat, eta oro har debekatuta dago edozein lur-harrotze.

Era berean horrela katalogatuta geratuko dira Añarbeko harizti azidofiloak, Azpitarte eta Txoritokietako baso mistoak eta Kutarroko ametzia, I.V.07.I.01 "Ingurune Fisikoa: Gaur egungo landaredia" informazio-planoan bildurikoak. Formazio natural hauek Dokumentu Osagarria: Katalogoa dokumentuan inbentariatuta daude.

4. Añarbeko herri-mendiko pago eta haritzeko formazioek okupaturiko zuhaitzi zaharrenak, Kutarroko ametzia eta Txoritokietako baso mistoa dauden egoeran zainduko dira, bilakaera naturaleko prozesuen menpe, baso-lanen eraginik gabe.
5. Jatorrian ametzaren (*Quercus pyrenaica*) inguruan egituratzen zen natur masen atzerakada orokorra dela-eta, espezie honentzako aldeko diren sasoieta lehentasunezkoa izango da hura berreskuratzea zenbait ekintzaren bidez: baso-ixteak, zuzeneko ereintzak, birpopulatzeak eta abar.
6. Landaredia hondatuta edo baso-ustiapenetatik datozen udal-titulartasuneko lurretarako, Udalak Berreskuratze Planak landuko ditu metodologia eta epeak zehazteko udalerrian finkaturiko bertako baso atlantikoaren mota desberdinei dagokien egiturazko konplexutasuna lortu ahal izateko.
7. Ibai eta erreken emarien erregulazio naturala ziurtatzeko, baso-estalki iraunkorra mantenduko da ubideen, ibarren eta goi-ibarren ertzetan.
8. Era berean, debekatuta dago bertako zuhaitz eta zuhaixka-landarediaren mozketak Komunikazioen Sistema Orokorraren eta Ibai Ubideen Sistema Orokorraren bazter eta ertzetan. Azken kasu honetan, Zortasun Zonari dagokion bost metroko zabalera zerrenda batean, ubidea oztopatzen duen landaredia garbitzeko esku-hartzeak izan ezik, eta betiere Udalek Zerbitzu Teknikok gainbegiratu.
9. Ondoko taulan EAEko Espezie Mehatxatuen Katalogoan bilduriko floraren espezieak adierazten dira, betiere Errenterian badaudela zinez egiaztatuta badago. Horretaz gain, interes bereziko zuhaitz-espezieak ere barne hartzen dira, Gipuzkoako Lurralde Historikoan babestutzat deklaratu zituztenak (4/1990 Foru Dekretua). Edozein lizentziaren sustatzailek zerrenda hori hartu beharko du kontuan, Katalogoko fauna babestuari dagokionaz gain. Ondorio horietako, dagokion Proiektuan islatuko da ondoren adierazitako espezie babestuen presentzia (eta euren geroko eguneratzeak), eta euren babes eraginkorrerako ezarri beharreko neurriak.



KATEGORIA	IZENA	ESPEZIEA
INTERES BEREZIA (EAE)	· Lilipak	· <i>Narcissus bulbocodium</i> · <i>Narcissus pseudonarcissus</i>
	· Haginak	· <i>Taxus baccata</i>
	· Gorostiak	· <i>Ilex aquifolium</i>
INTERES BEREZIA (Gipuzkoa)	· Sagaminak	· <i>Malus sylvestris</i>
	· Udarea	· <i>Pyrus cordata</i>
	· Hostazuria	· <i>Sorbus aria</i>
	· Otsalizarra	· <i>Sorbus aucuparia</i>
	· Gurbea	· <i>Sorbus torminalis</i>
	· Gorostia	· <i>Ilex aquifolium</i>

10. Administrazioak beharrezkoak diren urteko mantentze-lanak egingo ditu Udaleko Baso Ondorean eta herri-mendietan dauden mendi-larreetan; mozketak, bakantzeak, birpopulatzeak, sastraka kentzeak, ixteak, berrereiteak, pasabide kanadarrak, askak eta abar.

11. Herri-mendietan abeltzaintzako edozein aprobetxamendu egiteko udal-baimena beharko da. Azienda mendira igotzeko baimenak urtero berrituko dira eta bestelako lehentasunezko erabilerekin bateraezintasunik ez dagoen gunetarako emango dituzte.

12. Debekatuta dago zura eta egurra moztea aisialdirako suak egiteko. Era berean, iratze, egur eta arrazoi desberdinak direla-eta botatako zuhaitzen aprobetxamenduak alde zurreko eskaera bidezko administrazio-baimena eskatuko du, eta Udal Zerbitzu Teknikoen ondorengo txostena.

Era berean, natur ingurunea zaintzeko zirkunstantziak edo premiek hala eskatuko balute, Udalak produktu naturalen bilketa erregulatu ahal izango du titulartasun publikoko mendietan.

13. Añarbeko herri-mendian barne harturiko lurzorua "Erregimen Bereziko Lur Zinegetiko" gisa sailkatuta dago. Jarduera zinegetikoak debekatuta daude aisialdi-guneetan eta euren babes-zonetan. Era berean, bisitari edo mendizale ugari bertaratzen direlako hala egitea komeni den gunetarako Udalak inguru horiek Segurtasun Zonatzat deklaratzeko eskatuko dio Foru Aldundiari.

Denboraldi zinegetiko bakoitzean eta lur publikoan edo pribatuan hegazti migratzaileak ehizatze postu-lerroak eta mendiko sokak jarri eta dagozkion zozketak egin ondoren, tokiko Ehiza eta Arrantza Elkarteek haien kopurua eta kokapena jakinarazi beharko dute, horretarako zerrendak eta planoak aurkeztuz Udalari. Basurdeen eta ehiza daitezkeen bestelako espezieen uxaldiek eskakizun berak bete beharko dituzte.

Aginduzkoa da jarduera zinegetikoetan erabilitako kartutxoaren zorroak biltzea, eta horren erantzule subsidiarioak zozketak eta lehiaketak antolatzen dituzten Ehiza eta Arrantza Elkarteak edo gainerako Erakundeak izango dira.



6.2.06. artikulua. Titulartasun pribatuko lurrak

1. Partikularren egur-aprobetxamenduetan, Errepide eta Bideen Udal Saretik kamioi eta basoko arrastatzeko makinaren pasatzea alde zuzenetik baimendu beharko da, Udaleko Zerbitzu Teknikoen txostenaren ondoren. Horretarako, alde zuzeneko fidantzaren gordailua ezarriko da, makineriaren pasatzeak erasun ditzakeen bide eta gainerako ondasun publikoak behar bezala berritzeko berme gisa. Basoko lanak behar bezala amaitu direla eta bide publikoak erasaten ez dituztela egiaztatuta ondoren, jarritako fidantza itzuliko dute.
2. Lur-zatien basoko ixteen burutzapena udal-lizentziaren menpe dago.
3. 6.2.05 artikuluko 7 eta 8. idatz-zatiak lur pribatuetan ere aplikatu ahal izango dira.

6.2.07. artikulua. Intereseko zuhaitz-espezien babesa

1. Oro har, debekatuta dago hiri-lurzoru eta lurzoru urbanizagarrian edozein espezieetako zuhaitzak moztea, mozketari hori lizentzia-obra bati lotuta eta udaleko Zerbitzu Teknikoen txostenaren bidez behar bezala justifikatuta egon ezean. Horretaz gain, lurzoru publikoan zein pribatuan, udal-baimena beharko da haien inausketarako edo beste edozein tratamendu edo esku-hartzerako.
2. Zuhaitz-aleak erasanda gerta daitezkeen obra edo jarduerako lizentziak eskatzen direnean, puntu hori jasota geratuko da, erasun hori dagokion proiektuan definituz, eta Udaleko Zerbitzu Teknikoek horri buruz adierazten dituzten babes-neurriak hartu beharko dira: berritzea, aldatzea, erasandako aleen perimetro-babesa edo inausketa. Era berean, behar-beharrezkoa den landaredia baino ez da moztuko obraren burutzapenean.

Neurri hauek ezarri ondoren zuhaitzerako edo zuhaitzetarako kalte handiak edo itzulezinak dakartzaten erasunak gertatzen badira, Udalak dagozkion zigorrak ezarri ahal izango ditu, eta erasandako zuhaitz edo zuhaitzak lurzoru publikoan balego/baleude, horien kalte-ordaina eskatu ahal izango du. Azken kasu honetarako, "Ornamentazioko zuhaitz eta zuhaixkak baloratzeko metodoa. Granada araudia" edo antzeko arauen irizpideak erabiliko dira balorazio-baremoetan.

3. Plan Orokorrak "Zuhaitz babestuak" biltzen dituen Katalogoa barne hartzen du Dokumentu Osagarri gisa, eta inbentario horretan euren tamaina, adina, itxura, historia, edertasuna, berezitasuna, kokapena, eksklusibitatea eta abar dela-eta babes berezia merezi duten zuhaitz edo zuhaitzen aleak zerrendatzen dira. Horrela katalogaturiko aleen kasuan debekatuta dago haien mozketari, eta udal-baimena behar da haien inausketarako edo bestelako edozein tratamendu edo esku-hartzerako.

BIGARREN ATALA. UBIDE, IBAI-ERTZ ETA UR-BILKETEN BABESA



6.2.08. artikulua. Xedea

Arau hauen xedea uraren erabilera, ubideak eta ibai-ertzak babes bereziko elementu natural gisa arautzea eta ibai eta padura dinamikei lotutako ekosistemen kontserbazioa edo leheneratzea bermatzea da. Era berean, ur-bilketen babesa arautzen da.

6.2.09. artikulua. Aplikazio-eremua

Udalerriko urtegiak, ibaiak, erretenak, iturburuak, kanalak eta lurpeko ubideak.

6.2.10. artikulua. Norabide orokorrak

1. Ubideak dragatzeko, arlo hidraulikoan eskumena duen organismoaren alde aurreko baimena exijituko da eta organismo horrek ezartzen dituen babes-neurriak bete beharko dira.
2. Debekatuta dago udal-lurralde osoko ibai-ertzetan kokatutako bertako baso-espezieak moztea, hain zuzen ere Uren Legearen Testu Bategina onartzen duen uztailaren 20ko 1/2001 Errege Lege Dekretuan ezarritako zortasun-zonako bost metroko zerrenda batean. Zona honetako baso-berritzeak bertako ibai-ertzeko espezieekin egingo dira.
3. Lurzoru ez-urbanizagarriko ubide eta ibai-ertzetan, esku-hartzeek zona atlantikoan bereizgarria den ur-lasterren morfologia kontserbatzeko printzipio orokorrari jarraituko diote. Horrela, meandro-formako ubide irregularrak mantenduko dira eta bertako urbazterreko landaredi iraunkorrez hornitutako ibai-ertz-zerrenda bat izango da.
4. Oiartzun eta Urumea ibaien eta hauen ibaiadarren ubideak eraginpean hartzen dituzten obra-proiektuetan, arrain-faunaren ziklo biologikoen fluxuak eta garapenak oztoporik gabe jarraitu ahal izango dutela bermatuko da beti. Horretarako, ubideetan egin beharreko esku-hartzeetan eta azpiegitura hidraulikoen eraikuntzan, beste zenbait araren artean, ubideen substratuaren irregulartasuna eta heterogeneotasuna mantenduko dira eta beharrezkoak diren arrain-eskalen eraikuntza exijituko zaio lizentziaren titularrari.
5. Obra-proiektuek ohiko edo ezohiko ur-goraldien eragina murrizteko eta ubide eta ibai-ertzetikiko afekzioak ahalik eta txikiak izateko beharrezkoak diren ekintzak hartu beharko dituzte kontuan eta, oro har, berreskuratze hidrológico-forestala eta ibai-habitatena lortzeko lanak sustatuko dira (Eusko Jaurlaritzaren 2001eko "Ibai Eremurako Ingeniaritza Naturalistikoko Tekniken Eskuliburuan" jasotako gomendioen arabera). Horretarako, beste jarduketan-ildo batzuen artean, ondokoak aurreikusi beharko dira: aldapen zabalkuntza ezpondetan, ezponden sostengatzea ingeniaritza biologikoko tekniken bidez, ibai-ertzak landarediz leheneratzeko obrak eta abar.



6. Ubideetan edo ibai-ertzetan egiteko esku-hartze bat barne hartzen duten obra guztietan, jarduketa-eremua ibai-ekosistemei lotutako bertako baso-espezieekin leheneratuko da (haltz, lizar eta urritzekin). Halaber, ezponden naturalizazioak landare-lurraren ekarpenekin, ereite hidraulikoekin, ziriztatzeekin, gramineoekin eta abar osatuko dira.
7. Iturburu, iturri edo erretenetako ur-bilketak arlo honetan eskumena duen Administrazioaren baimenari lotuta daude. Hala ere, obren burutzapenak (depositu erregulatzailleak, zangak edo hodian instalazioa) obra txikiko udal-lizentzia beharko du, eta ur-bilketa hauetarako beharrezkoa den azpiegitura lurzoru publikotik doanean, Udalak udal-lurzorutik pasatzeko baimena eman beharko du.
8. Ur-bilketen puntutik gora garatu beharreko obren eta jardueren kasuan, udal-txostenek afekzioak minimizatuko dituzten tresnak ezarriko dituzte. Horien artean ondokoak aipa daitezke: lurzoria babestuko duen landaredi iraunkor baten mantentzea, baso-soilketak entresakekin eta lehen bakanketekin ordezkatzeko, lur-mugimenduen murriztapena, pista eraikitzeke debekua eta abar.

- HIRUGARREN ATALA. PAISAIAREN BABESA

6.2.11. artikulua. Xedea

Arau hauen xedea ingurune fisikoaren egungo egoeraren alterazioa dakarten obrek eragindako afekzioak arautzea, aurrea hartzea edo minimizatzea da (lurzoruen erliebearen edo paisaiaren eta arro bisualen harmoniaren aldaketari dagokionez), era honetan kalitate oneko paisaia naturalen mantentzea bermatzeko. Azken batean, obra zibila ingurune naturalean integratzea da asmoa.

6.2.12. artikulua. Aplikazio-eremua

Lurzoru urbanizagarria eta ez-urbanizagarria.

6.2.13. artikulua. Norabide orokorrak

1. Erabilerekin eta jarduerekin paisaia duten eraginari buruzko azterketa.
 - a. Obra eta jarduera lizentzien emakidan Udalak hainbat eraikuntza-alderdi baldintzatuko ditu landa-paisaia tradizionalen eragindako afekzioak minimizatzeke, Udal Zerbitzu Teknikoek egokitzen hartzen diren prebentzio-neurriak edo neurri zuzentzaileak ezarriko dituen txostena eman ondoren.

Garatu beharreko neurrien artean ondokoak hartzen dira kontuan: trazaduraren aldaketa, ezponden eta lubeten tratamenduen eta leheneratzearen bidez obra publikoak ingurune naturalean integratzeko baldintza teknikoak, materialen erabilera



egokia lurzoru ez-urbanizagarrian eraikinak edo egiturak eraikitzean, ibai-ertzen tratamendua eta leheneratzea bideratze esku-hartzeetan eta zuzenketetan, elementu osagarrien kokapen egokia landa-eraikuntzetan, hesi naturalez egindako landa-finken itxituren sustapena, landare-estalkien erabilera eta abar.

- b. "Paisaia Interes Handiko Areetan", hau da, kalitate handiko paisaiak dituzten, ikuspen handiko arreetan dauden edo hauskortasun berezikoak diren Areetan, lizentziaren titularrak arro bisualetan eragindako afekzioak xehatu beharko ditu aurkeztu beharreko dokumentuan; halaber, argazki-erreportaje baten bidez eraikuntza-elementuak aztertuko ditu hainbat orientazio, arro bisual eta behaketa-puntutatik, eta eraginik txikieneko alternatiba proposatuko du. Area hauetan obrak oso deigarriak dira eta ikusten den paisaia nabarmen baldintzatu dezakete neurri zuzentzaileak hartzen ez badira.

2. Landaredia eta landare-lurra berritzea.

Indusketetan, lur-berdinketetan, lur-mugimenduetan, bete-lanetan, zangetan, kanalizazioetan, lur-egokitzapenetan edo mota orotako lurrerauzpenetan, lizentziaren titularrak landaredi naturala berritu beharko du (belarra, zuhaixkak eta zuhaitzak), beharrezkoa den landare-lurreko substratua barne hartuta (obren ondorioz substratu hori suntsituta geratu denean). Landare-lurra hazirik edo ohiko landare inbaditzaileen (hala nola *Raynutria japonica* izenekoaren edo antzekoen) zatirik gabe egongo da beti. Halakorik izanez gero, Udalak berehala ordezkatzeko agindua emango du.

3. Ezponden eta lubeten tratamendua.

Era berean, labaintzeak, lar-jausiak eta bestelako higadura-prozesuak saihesteko, obren ondorioz sortutako ezpondak eta lubetak finkatu eta leheneratu egingo dira beti, ereite hidraulikoen bidez (hots, belar edo zuhaixka landareen hazien bidez), landare-lurreko ekarpenen bidez, zuzeneko ereiteen bidez edota teknika asimilagarrien bidez; ezein kasutan ez dira gorri geratuko. Sortuko diren ezponden aldapa murriztuko da ezpondak babesteko eta sostengatzeko neurriak aplikatu ahal izateko moduan utzi arte.

4. Harri-lubeten eraikuntza.

Harri-lubetak eraikitzean harrien arteko espazioak landare-lurrez beteko dira, era honetan obra zibila paisaian integratzen lagunduko duen landaredia jarri ahal izan dadin.

5. Lur-mugimenduak.

Lur-mugimenduak debekatuta daude helburua justifikatuta ez dagoenean, helburua landa-inguruneke nekazaritza eta abeltzaintza ustialeku bati lotutako jarduera baten hobekuntza ez denean edo obra-lizentzia batean barne hartzen direnean.

6. Ibarren betelanak.



Ibarren betelanak baimendu ahal izateko, ibarra kokatuta dagoeneko lurzatiak izan dezakeen nekazaritza eta abeltzaintza erabileraren hobekuntza esanguratsua dakartela frogatu beharko da. Horretarako, Udal Zerbitzu Teknikoek ibararren betelana nekazaritza eta abeltzaintza jarduerari lotuta dagoen eta kokatu nahi deneko finkaren ezaugarriekin eta erabilerarekin bateragarria den baloratuko dute. Udalak, besteak beste, ondoko dokumentazioa eskatuko dio sustatzaileari:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ustialekuen Erregistroan inskribituta egotearen ziurtagiria.
- Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantza Erregimen Berezia inskribituta egotearen foru-ziurtagiria edo nekazaritza-enpresariaren errolda-inskripzioa.
- Bideragarritasun eta lotura azterlana, nekazaritza-ustialekuak titularrari lanbide arteko gutxieneko soldata bezalako etekinak edo handiagoak lortzea ahalbidetzen dion eta familia-laneskuan gutxienez Nekazaritzako Lan Unitate (NLU) baten baliokidea okupatzen duen dimentsio ekonomikoa duela frogatuko duena.

7. Errepideak, bideak eta pistak.

- a. Lurzoru ez-urbanizagarrian debekatuta dago pistak zabaltzea, nekazaritza eta baso erabilerari lotutako zonetan eta ustiapen arrazional, jasangarri eta justifikatuaren ondorioz izan ezik. Horretarako, lehendik dauden baso-pisten sarea planteatutako helburuetarako nahikoa den hartuko da kontuan. Aldez aurretik, sustatzaileak justifikazio-memoria, aurrekontua eta oinarri kartografiko egokia aurkeztuko ditu Udal honen aurrean.

Titulartasun publikoko lurzoruetan, baso-bideak eraiki edo hobetzeko obren aurretik dagokion proiektua idatziko da Udalak onar dezan, Udal Zerbitzu Teknikoek txostena eman ondoren. Proiektu horretan soberako materialak zabortegira eramatea barne hartuko da, eta debekatuta egongo da *in situ* uztea.

- b. Lurzoru ez-urbanizagarrian errepide eta bideetatik dagoen paisajearen ikuspenaren babesa eraikitzeke edo zuhaitzak landatzeko aukeren murriztapen berezi baterako arrazoi izan daiteke.
- c. Trazaduraren zuzenketak egiteagatik edo beste arrazoi batengatik erabiltzen ez diren errepide, bide eta pista tarteeetan, oraindik geratzen den zorua altxa eta zabortegi baimendu batera eramango da. Ondoren, landare-lurra zabalduko da eta eraberritutako tartea landarediarekin leheneratuko da.
- d. Debekatuta dago ibilgailu motorizatuak ibaien ibilguetan, landan zehar, bidexketan eta, oro har, berariazko mugarik ezarrita ez duten errepide eta baso-pistetatik kanpo ibiltzea. Mendiko ziklismoa pistetan eta bidexketan soilik egin ahal izango da, bertatik irten gabe.



- e. Oro har, bide publikoak, halako izaera juridikoarekin, zabalik egongo dira etengabe. Interes publikoari edo ingurune naturalaren babesari lotutako arrazoiak direla eta, Udalak motordun ibilgailuen trafikoa arautu ahal izango du. Halaber, bide publikoetan edozein motatako itxiturak egin dituzten partikularrei jatorrizko egoeran uzteko errekerimendua egingo die Udalak. Kasu jakin batzuetan (zabortegiak edo hondakindegia jartzean, lur-egokitzapenetan eta abar) Udalak bide publikoetan ibiltzeko baimendutako gehieneko pisua mugatu ahal izango du zoruan kalteak saihesteko.
- f. Mendiko Bidexken Udal Sarea ondoko bidexka homologatuek osatzen dute (zabal daitezkeela eta urteko mantentzea egingo dela kontuan hartuta): SL-Gi 3 (San Markosko bidea), SL-Gi 4 (Txoritokietako bidea), PR-Gi 86 (Aizpitarteko haitzuloak), PR-Gi 87 (Aldurako bira), PR-Gi 88 (Urdaburuko bira) eta PR-Gi 89 (Listorretako bidea).
- g. Udalak hipika-zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresek beren jardueran erabiltzen dituzten ibilbideak arautu ahal izango ditu, era honetan lurzoruarekiko eragina edo lehentasunezko beste erabilera batzuekiko bateraezintasuna murriztu ahal izateko.
8. Aire-lineak eta azpiegitura-kanalizazioak paisaian integratzea.
- a. Udalak neurri zuzentzaileak ezarriko dizkie sustatzaileei eta konpainia hornitzaileei aireko linea elektrikoak eta telefono-lineak eta udalerritik doazen azpiegitura-kanalizazioen trazaduran, era honetan paisaia naturalekiko eta nekazaritza eta abeltzaintza eta baso aprobetxamenduekiko eragina ahal bezain txikia izan dadin. Neurri horien artean lineak eta trazaduraren lurperatzea aipa daiteke; horrela, ikuspen handiko arroetako zeharbideak saihestuko dira.
- b. Halaber, azpiegitura-kanalizazioen obrak amaitu ondoren, sustatzaileak substratua jatorrizko egoeran utzi beharko du, eta horretarako landare-lurreko behar adinako ekarpena egin eta berriz ereingotu du gramineoekin edo baso-berritzeen bidez.
9. Landa-paisaia tradizionala mantentzea.
- Nekazaritza-paisaia atlantikoaren kontserbazioa sustatzeko, Udalak emandako lurzoru ez-urbanizagarriko obra eta jarduera lizentzietan Udalak paisaia tradizionala babestu eta kontserbatzeko neurri jakin batzuen aplikazioa sustatuko du eta, besteak beste, ondoko zehaztapenak hartu beharko dira kontuan:
- Baserriari edo ustialekuari erantsitako egitura tradizionalak mantentzea: labeak, putzuak, harlangaitzeko edo harlanduzko hormak, harrizko fatxadak, edaskak, bordak, karobiak, harrizko artegiak, kortabasoak eta abar.
 - Hesi biziak, zuhaitziak, zuhaitz bereziak eta abar mantentzea.
 - Baserriari lotuta dauden, tradizionalak ez diren material desegokiekin eraikita dauden eta landa-ingurunean paisaiarekiko eragin negatiboa duten egiturak kentzea: latorriak,



txabola marjinalak, jergoiak eta abar. Horretarako, landa-etxebizitzarako edo nekazaritza eta abeltzaintza ustialekuetarako lizentzia orotan elementu hauen eraispena edo, hala badagokio, ordezkapena hartuko da kontuan.

10. Kartelak, errotuluak eta publizitate-iragarkiak.

Debekatua dago merkataritza-markei buruzko edozein eratako publizitatea, errotuluak, propaganda edo antzekoak jartzea, dela euskarri finkoetan, dela gainerako osagai lagungarri mugikorretan edo altzarietan. Era berean, debekatua dago kanpoaldean salmenta-makinak eta saltoki mugikorrek jartzea.

Baimenduta egongo da Merkataritzako jarduerekin zerikusia duten errotulu nagusiak eta ostalaritzako edo nekazaritza eta abeltzaintzako lekuetara iristeko bideak erakusten dituzten kartelak jartzea, eta baita halaber natur gune babestuak (Aiako Harriko Natur Parkea, Lau Haizetako Parkea) edo aisialdirako guneak kudeatzeko erabiltzen diren errotuluak jartzea ere; horri dagokionez, honako hauek izango dira aisialdirako guneak: San Markos, Kutarro, Aitzetako Txabala, Listorreta-Barrengoloia, Malmazar, Pagotzarte eta Otraitz.

6.2.14. artikulua. Hondakin solidoen isurketak erregulatzeko baldintzak

1. Hondakin solidoak honela sailkatuta daude:

- a. Lur-hondakinak: Lurra atera edo erauzteko lanetan sortzen direnak; beraz, agregakinak edo lurak bakarrik onartuko dira, baina ez ordea eraikuntza-eraiispenetako eta obretako materialak eta zaborrak, edo eraikuntzako elementuak egiteko prozesuan sortzen direnak.
- b. Lur-hondakinak eta zaborrak: Eraikuntza eta hirigintzako edozein eratako lanetan sortzen direnak, obretako zaborrak, lurra atera eta erauzteko lanetan sortzen direnak eta abar; horietan, agregakinez gainera, eraikuntza-lanetako bestelako hondakinak ere onartuko dira. Material horiek dagokien Udal Ordenantzan xedatutakoaren arabera garraiatu eta botako dira.
- c. Hondakin organikoak: Etxeko jardueretan sortzen diren guztiak, baldin eta lur edo zaborrik ez badute, eta oro har, erradioaktiboak, meategietakoak edo hobi septikoen garbiketan sortuak ez diren guztiak. Industria eta ospitaletako hondakinak ez dira atal horren barruan sartuko baldin eta etxeko jardueretako hondakinekin erabat parekagarriak ez badira.



2. Hondakin solidoak San Markoseko zabortegi kontrolatuan bota beharko dira.

Lur-hondakinak eta zaborrak jadanik erauzpen-lanik egiten duten harrobietan bota ahal izango dira; era horretan, eta ahal den neurrian behintzat, harrobiek lehengo ezaugarriak berreskuratzeko ahalegina egingo da.

Salbuespenez, Udalak onartu egingo du hondaketa-lanetan sortzen diren lur-hondakinak eta zaborrak leku jakinetan botatzea, baimendutako obren barruan sartuta betiere, baldin eta horiek San Markoseko zabortegira garraiatzea oso garestia bada, edo zabortegi horrek bota behar diren hondakinak behar den azkartasunez jasotzeko ahalmenik ez badu, edota lurjabeak hala eskatzen badu, nekazaritza, abeltzaintza edo basogintzako jardueri etekin hobea ateratzeko.

3. Aurreko atalean adierazitako kasuei dagokienez, eta ingurumenaren kalitatea behar bezala babestuko dela ziurtatzeko, hondakinak botatzeko baimena eskatzen denean, hori nola egingo den zehaztu beharko da, eta bereziki, ondoko xehetasun hauek adieraziko beharko dira:

a. Botatze-eremuko puntu bakoitzean neurketa egin eta osatu beharreko hondakin-pila lau (4) metrotik gorakoa ez bada, aurreproiektu bat aurkeztu beharko da, eremu hori nola beteko den urratsez urrats adieraziz .

b. Botatze-eremuko punturen batean hondakin-pila lau (4) metrotik gorakoa baldin bada, lehenago adierazitakoaz gainera, ondoko dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

i) Eremu hori erabat betetakoan ingurumenak izango duen eragina argi erakutsiko duen azterketa bat, eta bertan beharrezko sekzioak, fotomuntaketak, ikuspegiak edo bestelako irudikatze-moduak erabiliko dira.

ii) Isurketa-urei eta ibarbideei buruzko azterketa.

iii) Ezponden eta ertzen tratamenduari buruzko azterketa bat, hondakinak bota ondoren haiei eusteko jarriko diren zuhaitzak edo bestelako landaketak adieraziz.

iv) Betetako zabortegiaren irudia eta paisaiaren leheneratzea erakusten duen plano bat.

Hondakin-pilaren altuera edozein dela ere, ezponden ez dute inoiz ere hirutik biko (3:2) aldapa-maila gaindituko, eta ezponden artean gutxienez hiru (3) metroko kale bat izango dute; ezponda horiek gehienez bi (2) metro izango dute gora. Kasu horretan, egiten den betelanak behar bezalako drainatze-sistema izatea ziurtatu beharko da; honda daitezkeen elementu naturalak eta eraikitakoak behar bezala babestuko dira: osatzen diren profilak ondo egokituko dira beren ingurunera (hiri- nahiz landa-ingurunera) eta eragindako luraren azalera leheneratuko da.



Azken helburu horri begira, behar adinako lodiera izango duen lur beltzeko geruza bat jarriko da eta zabortegia dagoen lurraldeko paisaiaren ezaugarrietara egokitzen diren zuhaitzak, zuhaixkak eta landareak landatuko dira.

Neurri horiek guztiak hartu aurretik teknikari eskudun batek sinaturiko proiektua aurkeztu beharko da, Udalak hala egin behar dela erabakitzen bada, eta proiektu horretan Arau hauetako 3.1.04 artikuluan (10. atalean) ezarritako zehaztapen guztiak bete beharko dira.

4. Hiri-lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian lurrak botatzea baimendu ahal izango da, baldin eta horren helburua lurreko sestrak Arau hauen aurreikuspenetara, menpeko planeamenduaren aurreikuspenetara edo udal baimena duen obra-proiektu baten aurreikuspenetara egokitzea bada.

6.2.15. Artikulua. Erauzpen-jarduerek erasandako espazio naturalak leheneratzea

1. Aire librean aprobetxamenduak edo ustiapenak egiteko jarduera baimentzen den guztietan, natur gunea leheneratzeko eginbeharra bete beharko da. Hori dela eta, lanek eragindako natur gunea Leheneratzeko Plana aurkeztu beharko da Udaletxean. Plan hori udal baimenaren eskaerari dagokion dokumentazioarekin batera aurkeztu beharko da.
2. Natur gunea Leheneratzeko Plan horretan "Erauzpen-jarduerek eragindako natur gunek Leheneratzea" deritzan urriaren 15eko 1994/82 E.D.ko hirugarren artikulua ezarritako dokumentazioa jaso beharko da.

- LAUGARREN ATALA. GUNE HONDA ERRAZAK ETA ESPAZIO NATURALAK

6.2.16. Artikulua. Gune honda errazak eta espazio naturalak babesteko berariazko neurriak

1. Listorreta-Barrengoloia Landa Parkea eta aisialdirako beste gune batzuk.
 - a. Debekatua dago gune horien egoera naturala aldaraz dezakeen edozein jarduketa egitea, Listorreta-Barrengoloia eremuan era guztietako lur-higidurak edo eraikuntzak egitea barne, gune horretako ezaugarriak babesteko beharrezkoak direnak izan ezik. Udalak, era kontrolatuan, beharrezko jotzen dituen baso-berritzeak egin ahal izango ditu gaur egun dauden basoan era egokian mantentzeko.
 - b. Udalerriko aisialdirako guneetan (Malmazar, Pagotzarte, Otraitz, Listorreta-Barrengoloia, Aitzetako Txabala, San Markos eta Kutarro) eta gerora antola daitezkeenetan, debekatua egongo da sua piztea horretarako jarritako eremuetan edo partikularren barbakoetan ez bada.



-
- c. Udalak urtero beharrezko mantentze-lanak egingo ditu lehenago adierazitako aisiialdirako guneetan eta udalerriak dituen zazpi baso-borda publikoetan (Pagotzarte, Maixar, Malmazar, Burkondo, Ezpalaurri, Asentso eta Otraitz).
 - d. Belardi eta lursail naturalak ondo babestu ahal izateko debekatuta dago ibilgailu motordunak edo mekanikoak aparkatzea horretarako mugaturiko lekuetatik kanpo, eta horrelako ibilgailuak ez dira inoiz bisitari eta oinezkoentzat egokituriko lekuetan sartuko.
2. Aizpitarate haitzuloetako aztarnategi arkeologikoak.
 - a. Debekaturik dago horietan eta horien inguruan zuzenean inolako jarduketarik egitea, erakunde eskudunak berariaz baimendutako indusketa-lanak izan ezik.
 - b. Ikusirik Aizpitzarten badirela basoko faunaren hainbat espezie endemiko, eta bestalde, Basoko eta Itsasoko Faunan eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskal Katalogoan babesturiko hainbat espezie daudenez, edozein jarduketa abian jarri aurretik, aipaturiko espeziei eta beren habitatari buruzko betekizunak hartu beharko dira kontuan, eta hori erabakigarria izango da edozein jarduketa aurrera eraman ahal izateko.
 - c. Debekatua dago Aizpitzarten eta bere inguruan kanpatzea.
 3. Añarbeko herri-basoak.
 - a. Debekatua dago natur paisaia aldarazten duen, ikus-eremua mugatzen duen edo ingurunearen oreka naturala hautsi edo desitxuratzen duen edozein ekintza burutzea edo instalazioa jartzea. Horrez gain, lehendik jarrita dauden instalazioak kendu edo aldatzeko ahalegina egin beharko da, betiere teknika eta ekonomiaren aldetik bideragarria bada.
 - b. Añarbeko herri-basoan lortu beharreko helburua hauxe da: hostogalkorreko pago eta haritzez osaturiko basoak berreskuratzea, gaur egun oraindik dauden basoetan beharrezko aprobetxamenduak egin ondoren.
 - c. Goizuetatik Arrizabalen barrena pasa eta Añarbeko urtegia eta basoa zeharkatzen dituen tentsio ertaineko linea elektrikoaren hondakinak bota egingo dira.
 - d. Añarbe izena merkataritzarako edo publizitate-helburuetarako erabili nahi denean, dagokion baimena eskuratu beharko da.
 - e. Oro har, debekatua dago ibilgailu motordunak herri-basoaren esparruan ibiltzea, Natur Baliabideak Antolatzekeo Planean (NBAP) eta Aiako Harria Natur Parkea Erabili eta Kudeatzeko Plan Zuzentzailean (EKPZ) aurreikusitako pertsona eta taldeenak ez badira, Añarbeko herri-basoa natur gune horren barruan baitago. Baimenak Udalarari eskatu beharko zaizkio, eta bera arduratuko da bertara sartzeko Baimenen Erregistroa



kudeatzeaz. Baimenak urtero berritu beharko dira. Erregistro horretaz arduratzeko Udala Aiako Harria Natur Parkeko Administrazioarekin elkarlanean arituko da.

4. Añarbeko urtegiaren azpiarro hidrologikoa.
 - a. Añarbeko azpiarroaren eremuan erabilera eta jarduera guztiak hornidurarako uraren kalitatea eta natur ingurunea zaintzeko helburu nagusiaren menpean geratzen dira, eta lurra mugitu beharra dagoen jarduerarik ez da burutuko.
 - b. Urtegiaren kudeaketa Añarbeko Uren Mankomunitateari zuzenean badagokio ere, Udalak murrizketak ezarri ahal izango ditu, eta baita eragina murrizteko baldintza bereziak ere, higadura-arriskua duten erabilera guztietarako edo akuiferoak edo lur azaleko isurketa-urak kutsatzeko arriskua duten erabilera guztientzat, urtegira zuzenean doan azpiarro hidrografikoaren eremuan: egur aprobetxamenduak, baso pistak eraikitzea, artzaintza estentsiboa basoan, etab.



6.3. KAPITULUA ONDARE HISTORIKO-ARTISTIKOA ETA ETNOGRAFIKO-ARKEOLOGIKOA BABESTEKO ARAUAK

6.3.01. Artikulua. Xedea

Plan Orokorreko zehaztapenen dokumentu osagarri moduan eta LLTB-76ren 25, 42 44, 55 eta 56 artikuluetan eta BEren 86 eta 87 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera Errenteriako Udalerrian eraikita dauden elementuen eta gune eta natur guneen zerrenda jasotzen duen Katalogoa gauzatu da. Duten interes artistiko, kultural, historiko edo naturalagatik babes berezia behar dute, ezinezkoa izan dadin horiek suntsitzeko edo hondatzeko ezer egitea.

Herrigunea Birgaitzeko Plan Bereziaren babestu izan diren elementu guztiak sartzen dira Katalogo honetan, eta horietaz gain beste batzuk ere sartzen dira, horiek Plan Bereziaren mugaketan eta beste eremu batzuetan ageri dira.

Orokorrean, Katalogoan sartzen diren elementuetan ez da horiek suntsitzeko edo hondatzeko jarduerarik burutuko, baina baimena eman ahal izango da eranskinak kentzeko edo baliorik gabeko elementuak edo jatorrizkoaren izaera desitxuratzen dutenak kentzeko egiten diren lanak. Halaber, dagokion aplikazio-araudian ezartzen den eran baimendu ahal izango dira horiek handitzeko lanak, beti ere lan horietan funtsezkoak diren balioak errespetatzen baldin badira.

Plan Orokorra garatzeari begira Ondare Katalogatua Babesteko Plan Berezia gauzatuko da, eta horrek babes-arautegia ezarriko du. Katalogatutako elementu bakoitzarentzat babes-neurri bereziak zehaztuko dira, burutu daitekeen esku-hartze horren parametro desberdinak zehaztasun osoz arautuko direlarik. Gainera, Plan Bereziak, horretako arrazoiak emanez, katalogatutako elementuen zerrenda osatu ahal izango du.

6.3.02. Artikulua. Onura publikoko aitortzea

Interes historiko-artistikoa duten eraikinen edo elementuen katalogazioak berarekin dakar horiek artatu, babestu eta zaintzeko obligazioa. Aipatu helburuetarako eskaini behar den arretatik sortzen diren betebeharrak horien jabeen dagozkienak izango dira, eta baita Administrazio Publikoarenak ere hari dagokion neurrian.

6.3.03. Artikulua. Katalogazioaren norainokoa

1. Eraikin baten kultur ondasun higiezin moduan inbentariatu direnetan debekatuta egongo da eraikinarenak ez diren era guztietako elementuak jartzea, hala nola iragarkiak, kartelak, banderatuak, kableak, zutoinak edo markesinak.
2. Inbentariatu diren higiezinetan dauden eta aurreko zenbakian aipatu diren elementuak kendu edo suntsitu egin beharko dira gehienez urtebetekoa izango den epean, dagokion



eraikuntzaren katalogoa onetsi zen egunetik kontatzen hasita, edo Plan Orokorra behinbetiko onetsi zenetik.

3. Artapenerako betebeharrak orokorretarako, eraikin baten kultur ondasun higiezinak inbentarioan sartzeko jabeek Plan Orokor honen bidez egin behar dituzte egin beharreko lanak, horiek baldintza estetikotara eta ingurumenaren alorrekoetara egokitzeko, beti ere indarrean dagoen legeriak ezarri dituen laguntzak, dirulaguntzak, salbuespenak edo onurak jasotzeko edo gerora onar daitezkeenak eskuratzeko izango duten eskubidearen kalterik gabe. Inbentarioan sartzeko kasu bakoitzean zehaztu izan diren partikularrak ere beteko direla ziurtatuko da, edota beharrezko jarduerak sustatuko direla baldintza horiek lortzeko.

6.3.04. Artikulua. Katalogatutako elementuen tipifikazioa

Katalogatutako elementuen zerrenda ondorengo eran egituratu da Dokumentu Osagarrian:

“05.01. Area Monumentala: Herrigunea (Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren 14/2000 Dekretua)

05.02. Area Monumentaleko eraikinak: Herrigunea (Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren 14/2000 Dekretua).

05.03. Interes Kulturala duten beste ondasun higiezin batzuk:

- Herrigunea
- Herri barruko eremuak
- Arkitektura erlijiosoa duten eraikinak
- Arkitektura militarra duten eraikinak
- Arkitekturako edo Ingeniaritza Industrialeko Higiezinak
- Landa ingurunekeo Arkitektura

05.04. Erretaulak

05.05. Ondare Arkeologikoa

- Herrigunea
- Monumentu Megalitikoak
- Gune Arkeologikoak

05.06. Berezko egiturak

- Zorrotz Babestu Beharreko Basoak
- Babestutako Basoak
- Paisaia mailan interes handikoak diren Inguruak
- Egiturak: Dolinak
- Babestutako zuhaitzak”



6.3.05. Artikulua. Herrigune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziak Babes Erregimenean eragindako aldaketa.

Herrigunean eragina izango duen Birgaitze Area Integratuari dagokion espedientearen bidez eskuhartze-eremuan dauden eraikinen eta katalogatutako elementuen zerrenda aldatu ahal izango da, hori ez da Plan Orokorreko Aldaketatzat hartuko, eta elementu berri batzuk gehitu eta beste batzuk kenduko dira, azterketa zehatzago batetik balorazio-irizpide desberdinak ateratzen badira. Nolanahi ere, ahalmen hori ez da zabalduko kultur ondasun higiezinaren barruan onartu diren eraikinetara.

Herrigunea Birgaitzeko Plan Bereziaren bidez horren aplikazio eremuan sartzen diren eraikinentzat adierazitako babes-irizpideak aldatu edo osatu ahal izango dira.

Errenteria, 2004ko apirila

Plan Orokorraren Bulegoko Zuzendaria

Stua.: Enrique Ponte Ordoqui